

Amaikak ba-diñoe
zaartua zareala,
pipi-zerenak janik
il-ur zagozala.

Ta... zu ilten ba'zara,
zelan nik abestu?
Zuk uts emon ezkero,
zelan nik arnastu?
Baiña, ba-dozu lar be,
oindiño kemenik:
urte luzez, oi maite!
zagoz, bai, mardulik.

GAU - ERESIA

Esaera: «Andra Maria,
jaio baiño len,
Karmel-padarrak
gogoz gur eben».

Gau-erdi. Giro epel atsegin;
illargia goi albain jrunen;
geldi aitz, baso, beresi...
Padar-taldeak, koba barruan,
sail bitan kanta eresi.

goak: Erraldoi zantsu baten indarrez
zerua zear, nasi-nasian,
zelan odeiak iradu?
Era berean gure arima
zugana, Ama, doakigu.

2'garrenak: Gertu daukazuz gure biotzak,
gure gogoak ernai daukazuz,
oi amesezko zero urdin!
Goitar eresiz zu aintzatzea
da gure gaurko zeregin.

Tgoak: Egun zabaltze sorgin-taiuzko;
laiñoa bean aruntz-onuzka,
argia goian eun zuri:
buru ta biotz zeureak gozuz,
labe goria iduri.

2'garrenak: Biotzak maite, kantu aoak,
gau ta egun zu Amatzat autor,
bai egiteko bakana!
Zeru-zati bi diran begiok
itzuli, arren, gugana.

Tgoak: Gabiltzan bide au dozu, Ama,
ortzi-argiak sututakoa,
garra guztiz ta ondo-nai;
zuri atsegin yatzun goi-deia
biotzak yakuz erregai.

2'garrenak: Nekatxa zara zoragarria,
azalez urdin, barru-gun zuri:
nun leike jdoro bardiñik?
Zoramenezko ederkai orrek
zuntzutan gaukaz loturik.

1'goak: Bai arduratsu dala Jainko!
Gariak galtsu, azal egurrik,
ak nai onek dau zaindari;
guri, ostera, Ama gurena
eratu dausku gidari.

2'garrenak: Zu barik, naiz-ta ondasun bete,
bear aiñako aserik eztau
gure barruko irakiñak.
Txingar bi letxe, garkin pareko,
or Ama-seme bikaiñak.

I'goak:

Karmel'go tontor lillurakorra,
 Jainko-eskuak eder jaso,
 dana zugatz, usain ta su;
 milla margozko lore artean
 zure arnasa doargu.

2'garrenak:

Zugandikako eder jakitez—
 —Ama ta Birjiñ aldi batera—
 galanki gara aserik;
 oindiño baiña ba-dogu zador,
 zer-ikasi geiagorik.

I'goak

Garaia betez, —olan uste guk—
 etortekoa zarean. Ama,
 zakiguz beti eguzki,
2'garrenak: egunik egun atxulo barru
 gorets zaiguzan gartsuki.

EDESTI XAMURRA**(Neure Ioba Bilbatua'tar Jonetxu'ri, biotzez)****I.—Sarrera**

Atz artean zaukadan
 galburu guria:
 nok lekarkit niri be
 opa dodan eskerra,
 oi zure zoria!

Bizi-argi lez zaitut
 biotzean maite;
 ta, zuretzat dodaz gaur
 agur ta adi sutsuak,
 iñortxok ez beste.

Bir-loratuarena
 zure maite-edesti:
 mamin-azal eztia,
 barne-ikaraz josia,
 poz-zeru ta illinti.

II.—Aurkitu

Galdurik, ala itxia?
 Nik ez dakit ziur.
 Garia, ebagirik,
 metaetan bil eben
 biotz-esku samur.

Ni ara nintzanean
 zu bakar zengozan:
 solo erdian toto,
 ziñean ainbat luze,
 aurra iduri lotan.

Joranez makurturik
 zindudazan jaso.
 Ta zure begi eder!
 Zelako matrail ori!
 Zein irri-eraso!

Ezin nik azaldu, ez,
 zure izate jori:
 galtzu gorrista mean
 eundaka garauz betea,
 txairo ta ler-zori.

Zu atz artean tinko,
 etxera itzul nintzan;
 ta, pa gartsu emonik,
 kutxa zar lurrunduan
 gorde zindudazan.